



## Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

## Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / El Alcalde Andoni Alvarez Lete

## Zinegotziak: / Concejales:

## EH-Bildu

Marta Lasa Goñi  
 Xabier Fondón Pajares  
 Garazi Usandizaga Zubiria  
 Iosu Mateo Torrillos  
 Haizea Barandiaran Zubillaga  
 Diego Barrasa Ruiz  
 Larraitz Arriola Larrarte

## PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez  
 Ascensión Parrón Peguero  
 Aritz Alkain López  
 María Belén Moreno Méndez  
 José Antonio Fernández Da Purificação

## EAJ-PNV

Idoia Mikelez Alonso  
 M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández

## Elkarrekin Podemos

Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia

00000003

Eguna

2026/03/26

Hasiera

19.00

Amaiera

19.22

## Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

## Kontuhartzailea

Isabel Fuertes Matxin

## Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Imanol Goenaga Egibar – EAJ/PNV

## Gai Zerrenda:

- 2026/01/29(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

## Xedapenak

- Onartzea, behin betiko izaeraz, Andoingo Kale Nagusia 22-24 hirigunerako Xehetasun azterketaren testu bategina (Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bategineko Alde Zaharra 1 HEAko 1.8 eta AD.1.9).
- Ordenantza fiskalen aldaketa onartzea:
  - 02.Ondasun Higiezin zerga.
  - 04.Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainezko zerga
  - 07.Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egitegatik ordaindu beharreko tasak
    - 07.02 Dokumentuak egiteko zerbitzua.
    - 07.09 Udal Musika Eskola (2026-2027)

## Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 29/01/2026.

## Parte Dispositiva

- Aprobación definitiva del texto refundido del Estudio de Detalle de Kale Nagusia 22- 24 de Andoain (AD. 1.8 y AD.1.9 del AIU 1 Casco Viejo del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain).
- Aprobación de la modificación de las Ordenanzas Fiscales:
  - 02-Impuesto Bienes Inmuebles
  04. Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica
  07. Tasas por prestación de servicios públicos y la realización de actividades administrativas
    - 07.02 Servicio de expedición de documentos
    - 07.09 Escuela Municipal de Música (curso



ikasturtea)		2026-2027)
07.10 Galardi Haurreskola (2026-2027		07.10 Escuela Infantil Galardi (curso 2026-2027)
ikasturtea)		
07.16 Jarduera Fisikoa eta Kiroletako udal zerbitzua.		07.16 Servicio Municipal de actividad física y deporte.

**Kontrola**

4. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1/2026 zenbakidunetik 673/2026 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2026. aktatik 8/2026 aktara.
5. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 4.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1/2026 y la nº 673/2026 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 7/2026 al acta nº 8/2026.
- 5.- Ruegos, preguntas y propuestas.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Arratsalde on eta ongi etorri martxoko ohiko udalbatza honetara. Udalbatzarekin hasi baino lehen, aipatu nahiko nuke gaur gurekin, gure artean Isabel Fuertes kontuhartzaile berria daukagula. Eta alde batetik, zorterik onena opa nahi diot bere ibilbide berrian. Eta bestetik, aipamen bat egin nahiko nuke azken urte luzeetan Andoingo udaleko kontuhartzaile izan den Miriam Lizasori. Eskertza eta aitortza eginaz bere ibilbideari eta Andoingo herriaren alde egin duen lan guztiari. Besterik gabe, hasiera emango diogu udalbatzari.”

**1. 2026.01.29an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2026.01.29 datako batzarraldiari dagokion akta irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman da.

**2. Onartzea, behin betiko izaeraz, Andoingo Kale Nagusia 22-24 hirigunerako Xehetasun azterketaren testu bategina (Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategineko Alde Zaharra 1 HEAko 1.8 eta AD.1.9).**

Kontuan harturik 2025eko otsailaren 11n, Mikel Rodriguez Mendikute jaunak, Unanibia Eraikuntzak SL enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, idazki bat aurkeztu zuela. Bertan, Kale Nagusiko 22 eta 24 zenbakietan dauden eraikinak eraisteko lizentzia eta Kale Nagusiko 22-24 zenbakietan (Alde Zaharra HEA 1) 6 etxebizitza eta merkataritza-lokal bat eraikitze lizentzia eskatu zituen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bateginekoak.

Kontuan harturik 2025eko apirilaren 30eko idazkiaren bidez, interesdunei jakinarazi zitzaizela, eraisteko lizentzia emateko, eraikinen egungo egoeraren planoak aurkeztu behar zirela alde zurretik, solairu bakoitzean dauden sabai-azalera eraikigarrien erabilera xehatuak zehaztuz. Eraikitako sabai-azalaren (m2 (t) zenbaketa HAPOaren 60. artikuluan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

Kontuan harturik 2025eko ekainaren 12an aurkeztu zirela eskatutako plano xehatuak.

Kontuan harturik 2025eko apirilaren 30eko 1104/2025 zenbakiko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, herri horretako Kale Nagusiko 22-24 zenbakietan 6 etxebizitza eta merkataritza-lokal bat eraikitze lizentzia ukatu zela, besteak beste, Kale Nagusiko 22-24 zenbakietan eraikin bakarra eraikitze proiektuak bi zuzkidura-jarduketak elkartzea dakarrelako eta egikaritze-eremua, ezarritako partzelarioa, Kale Nagusirako fatxadaren lerrokadurak eta ibairako fatxada aldatzea eta, ondorioz, jabari publikoa



lagatzeko azalerak aldatzea dakarrelako.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta bi jarduketek eraikin bakarra eraikitzeko xedea dutela, eta sektoreko araudiak ezarritako baldintzek fitxa partikularrean ezarritako parametroak aldatzea edo osatzea eskatzen dutela, beharrezkoa da alde zuzenetik xehetasun-azterketa bat izapidetzea, ondoren eraikina egiteko beharrezkoak diren zehaztapenak ezartzeko eta eraikuntza berriaren konfigurazio fisikoari, fatxada guztien lerrokadurei, altueri, eraikinaren profilari eta hondoari buruzko zehaztapenak eta lurzoru urbanizatuko sestren kotak zehazteko.

Lerrokadura berriak ezartzeko, 66. artikuluko 4. puntuan adierazitakoa hartu beharko da kontuan: "a.1 Bizitegi-asetamendu zaharrak" lurzatiei aplikatu dakizkiekeen eraikuntzaren eitearen baldintza orokorrak. Bertan, honako hau ezartzen da: Ordezkapenak eginez gero, proposatutako jarduketari dagozkion eraikinen multzoa markatzen duten lerrokadurak errespetatuko dira. Kasu honetan, eta II-09.-Eraikitze eta urbanizatzeko baldintzak - Lerrokadurak eta sestrak planoan zehaztutako lerroa kontuan hartuta, lerrokadura Kale Nagusiko 20 eta 26 zenbakietako eraikinen izkinak lotzeko lerroari egokituko zaio.

Ikusirik 2025eko ekainaren 13n, Mikel Rodriguez Mendikute jaunak, Unanibia Eraikuntzak SL enpresaren izenean, Andoingo Kale Nagusia 22-24 hirigunerako Xehetasun Azterketa (Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategineko Alde Zaharra 1 HEAko 1.8 eta AD.1.9) aurkeztu zuena, Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak 2025eko ekainean idatzia

Ikusirik udal arkitektoak 2025eko uztailaren 7an eta hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2025eko uztailaren 11n egindako aldeko txostenak, Alkateak, 2025eko uztailaren 18an emandako 1974/2025 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuen Andoingo Kale Nagusia 22-24 hirigunerako Xehetasun Azterketa (Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategineko Alde Zaharra 1 HEAko 1.8 eta AD.1.9), honako baldintza honekin: dokumentua behin betiko onartu aurretik, generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa egitearen garrantzirik ezaren justifikazioa erantsi beharko zaio.

Kontuan harturik Xehetasun-azterlana eta horretarako izapidetutako espedientea jendaurrean jarri zirela 20 eguneko epean, 2025eko uztailaren 28ko 142 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta Berria (2025eko uztailaren 23a) eta Diario Vasco (2025eko uztailaren 24a) egunkarietan argitaratutako iragarkien bidez, interesdunek egoki iriztitako alegazioak aurkez zituzten.

Jendaurreko erakustaldi horretan ez zen alegaziorik aurkeztu, Udalbatzako idazkariak 2025eko irailaren 4an egindako ziurtagirian jasotzen den bezala.

Kontuan harturik ebazpena eta xehetasun-azterlana Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusira, URARA (Ur Agentzia-Uraren Euskal Agentzia) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa bidali zirela, sektorekako txostenak egin zitezten.

Kontuan harturik Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak eta URA Ur Agentziak emandako txostenak 2025eko urriaren 8an eta 2025eko urriaren 17an jaso zirela Udal honetan.

Kontuan harturik 2025eko urriaren 17an, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostena jaso zela Udal honetan. Txosten horretan, zenbait gogoeta egin ziren, eta xehetasuneko beste azterlan bat aurkezteko eskatu zen, txosten horren ondorioetan ezarritakoa betetzeko. Txosten hori arrokako erakunde horri bidali behar zitzaion, ondoren erabaki zezan.

Kontuan harturik 2025eko azaroaren 6an xehetasun-azterlanaren testu bategina aurkeztu dela, Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak 2025eko urrian idatzia, hasierako onarpen-erabakian eta espedientean dauden sektore-txostenetan ezarritako baldintzak betetzeko.

Agiri hori Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari bidali zitzaion 2025eko azaroaren 12an, erakunde horrek dagokion txostena egin zezan

Kontuan harturik 2026ko martxoaren 6an, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak emandako aldeko txostena jaso dela. Txosten horretan, oroitza gisa, kontuan hartu beharreko zenbait gai adierazten dira

Ikusirik, Lurralde Batzorde Irizpenamalearen 2026ko martxoaren 16ko irizpena.



Usandizaga andreak, Hirigintza, Obrak, Ingurumena eta Landaguneko Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsalde on. Bueno, hemen ekartzen duguna, lehengo urtetik datorren gai bat da. Hasiera baten eskatu zen kale Nagusiko 22 eta 24. zenbaki hauetan zeuden eraikinak eraitsi eta sei etxebizitza eta merkataritza lokal bat egiteko lizentzia.

“Lizentzia hori, eraikuntzakoa, ukatu zen. Azkenean 22 eta 24 zenbaki horietan, hau da, bi zenbaki horietan eraikin bakar bat egiteak bi zuzkidura jarduketa horiek elkartzea zekarrelako, eta bueno, beharrezkoa ikusi zen, xehetasun azterketa bat izapidetzea. Eta hau da gaur ekartzen duguna.

“Hemen jada beharrezkoak ikusi diran zehaztapen guztiak, zehaztu dira. Txosten sektorial guztiak pasa dira, falta zan konfederazioko txostena, hilabete honen hasieran iritsi da, eta behin guzti hau edukita, ba ekartzen da gaur, behin betikoz onartzera.”

Alkate jaunak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Ruiz andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, aipatzea, batzordean esan bezala, EAJ/PNV udal taldeak alde bozkatuko duela. Berri ona dala hirigintza tramitazioetan aurrepausoak ematea, bereziki etxebizitza sustatzeko balio izango badu. Dena den, autokritika egin beharra dago. Ze uste dugu sustatzaileak lehen eskaera erregistratu zuenetik denbora asko pasa da, administrazioak eraginkorragoa izan behar du eta udalak, kasu honetan, Hirigintza sailak, modu azkarragoan tramitatu beharko litzuzke. Are gehiago esaten dugunean etxebizitza prioritate bat dela.

“Hori komentatu nahi dugu, baino bueno, alde bozkatuko dugu batzordean bezela.”

Berriro, Usandizaga andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bai, bueno, kasu honetan, udalak hasierako izaeraz 2025eko uztailan onartu zuen. Otsailan hasi zen guztia. Gero apirilean entregatu zituzten beraiek proiektuaren zehaztapenak eta udalak 25eko uztailan jada hasierako izaeraz onartu zuen, alegazio epea eta eskatu ziran txosten sektorialak eta martxoan bertan iritsi da konfederazioko txostena. Horren zain egon da Hirigintza Saila, hori falta zelako onartu ahal izateko. Orduan, nik uste dut kasu honetan ez dela udal departamentuaren atzerapena izan.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak propopamena bozketara jarri du eta Osoko Udaltzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea UNANIBIA ERAIKUNTZAK SA enpresaren izenean diharduen Mikel Rodriguez Mendicute jnk. 2025eko ekainaren 13an aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko Kale Nagusia 22-24 hiriguneari dagokion Xehetasun-azterketaren Testu Bateratua, Alejandro Sáinz de la Encina arkitektoak 2025eko ekainaren 13an idatzia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2026ko martxoaren 6an jasotako txostenean jasotzen diren baldintza hauekin:

a. Txosten honen gorputzean adierazitako uholde-arriskuagatiko eraginaren arabera, kontuan hartu beharko da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren Berrikuspenaren Araudian ezarritakoa, urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartua (PH araudia):

– 37.6) artikulua. Urpean gera daitekeen eremuan, ez da onartuko uholde-arriskua nabarmen handitzea eragiten duen mota guztietako hondakin eta betegarririk pilatzea.

– 37.7) artikulua. Urpean gera daitekeen eremuan egiten den jarduketa orok erantzukizunpeko adierazpen bat izan beharko du, non higiezinaren jabeak edo jabeak argi eta garbi adieraziko duen ezagutzen duela eta bere gain hartzen duela dagoen arriskua.

– 37.8) artikulua. Obrak hasi aurretik, jarduketa sustatzen duenak Jabetza Erregistroaren ziurtagiria izan beharko du, eraikina uholde-arriskuko eremuan dagoela adierazten duen erregistroko idatzoharra dagoela egiaztatzen duena.

– Nahiz eta egoitza- eta hirugarren sektoreko (merkataritza) beheko solairuko erabileraren aldaketa urrakortasuna murrizten duen erabilera aldaketarekin bat datorren, PH Araudiaren 40. artikulua 3. atalean ezarritako eskalaren arabera, pertsonen eta ondasun ekonomikoen segurtasuna zaintzearen azken eta funtsezko helburuari jarraiki, beheko solairuan aurreikusitako erabilerek ez dute inola ere



ekarriko uholdeen aurreko edo uraldietan eragindako kalteberatasuna handitzea (PHren 39.1 artikulua).

Ildo horretan, KKH baimentzeko bidaliko den etorkizuneko eraikuntza-proiektuak kontuan hartu beharko ditu "Uholdeen aurreko eraikinen kalteberatasuna murrizteko gida" eta "Uholde-arriskua duten eremuetan eraikinak eraikitzeke eta birgaitzeko gomendioak" argitalpenen edukiak. Argitalpen horiek honako toki hauetan daude eskuragarri:

<https://www.miteco.gob.es/es/agua/temas/gestion-de-los-riesgos-deinundacion/planes-gestion-riesgos-inundacion/adaptacion-al-riesgode-inundacion.html>

b. Nolanahi ere, gogorazten da ibilguetako eta jabari publiko hidraulikoko zaintza-eremuan edozein obra edo lan egiteko alde aurreko administrazio-baimena edo erantzukizunpeko adierazpena beharko dela arroko erakundearen aurrean. Baimenak eta erantzukizunpeko adierazpenak ez dute zerikusirik izango administrazio publikoetako organoek eman beharreko beste edozeinekin (apirilaren 11ko 849/198 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9.4 artikulua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 18ko 665/2023 Errege Dekretuak sartutako idazkeraren arabera).

1.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Erabaki hau jakinaraztea UNANIBIA ERAIKUNTZAK SA enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Mikel Rodriguez Mendicute jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiak. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

### **3. Ordenantza fiskalen aldaketa onartzea: 02.Ondasun Higiezin zerga-04.Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainezko zerga-07.Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak (07.02 Dokumentuak egiteko zerbitzua- 07.09 Udal Musika Eskola (2026-2027 ikasturtea) 07.10 Galardi Haurreskola (2026-2027 ikasturtea) 07.16- Jarduera fisiko eta kiroletako udal zerbitzua.**

Konstituzioko 140. Artikuluak udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeke ahalmena aitortzen die.

Ikusirik, ondorengo ordenantza fiskalen aldaketa onartzeko proposamena:

- 02.Ondasun Higiezin zergaren Ordenantza Fiskala.
- 04.Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gainezko Zergaren Ordenantza Fiskala.
- 07.Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
  - 07.02 Dokumentuak egiteko zerbitzua.
  - 07.09 Udal Musika Eskola(2026-2027 ikasturtea)
  - 07.10 Galardi Haurreskola(2026-2027 ikasturtea)
  - 07.16 Jarduera fisiko eta kiroletako udal zerbitzua

Errenta-teknikariak 2026ko martxoaren 11n eta Hezkuntza eta Kulturako teknikariak 2026ko martxoaren 12an egindako txostenak ikusi dira.

Hezkuntza eta Kultura Saileko lehendakariaren 2026ko martxoaren 11ko proposamenak ikusita.

Ikusirik, Antolaketa Batzorde Irizpenemalaren 2026ko martxoaren 18ko irizpena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, dakizuen bezala, tasak, berez, 2026 urtekoak, 2025eko urrian onartu genituen. Gertatzen dena da gaur hona ekartzen ditugunak, alde batetik dira ordenantza fiskalaren aldaketak eta bestetik, izango liriateke urteko baino ikasturteko funtzionatzen duten bai, Udal Musika Eskola eta bai Haurreskola eta berauen tasak.

“Hor, alde batetik, esan Ondasunen Higiezin zergan, Trakzio Mekanikodunen eta Zerbitzu



Publikoarenean, proposatzen da Nisaen begiratzeko aukera bat, IRPFa begiratzeko. Guzti honek, familientzat prozedura erraztu egingo luke. Hori proposatzen da alde batetik eta bestetik, izango litzateke pasa den abenduan, familia guraso bakarren kasuan legea aldatu zen eta lege horren eguneraketa ere dakarkigu hona.

“Hori esanda, modu orokorrean aurkeztuko ditut puntu guztiak. Udal Musika Eskola eta Galardi Haurreskolaren kasuan, pasa den urtean onartu genun % 2,8ko igoera izango dutela eta haurreskolaren kasuan, gogorarazi zerbitzua berez doakoa dala eta tasa hau jangelako zerbitzuari ezartzen zaiola.

“Azkenik, jarduera fisikoaren kasuan, aipatu beharra daukat, hasiera batean ez zegoela proposamenean txertatuta, baina Alderdi Sozialistak egindako ekarpenari esker txertatu ahal izan dugu. Eta, bueno, eskertu nahiko nuke, edo unea baliatu nahiko nuke, Alderdi Sozialistari bere ekarpena eskertzeko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Kaixo, arratsalde on eta ongi etorri Isabel.

“Por parte del Grupo Municipal Socialista vamos a apoyar la subida. Es coherente con lo que aprobamos en octubre, y además se ha tenido en cuenta nuestra aportación, así que, por lo tanto, votaremos a favor.”

Jarrian, Ruiz andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

**4. “Batzordean esan bezala, gu abstenitutu egingo gera. Besterik gabe.”**

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Ordenantza fiskal hauen aldaketa hasiera izaeraz onartzea. Behin betiko erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldatutako testua argitaratzen diren egun berean sartuko da indarrean.

- 02.Ondasun Higiezinaren zergaren Ordenantza Fiskala.
- 04.Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskala.
- 07.Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
  - 07.02 Dokumentuak egiteko zerbitzua.
  - 07.09 Udal Musika Eskola(2026-2027 ikasturtea)
  - 07.10 Galardi Haurreskola(2026-2027 ikasturtea)
  - 07.16 Jarduera fisiko eta kiroltako udal zerbitzua

2.- Administrazio-espeditentia jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espeditentia aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentia jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ara behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

**5. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1/2026 zenbakidunetik 673/2026 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2026. aktatik 8/2026 aktara.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzara aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1/2026 zenbakidunetik 673/2026 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 7/2026. aktatik 8/2026 aktara .

Gaia eztabaiara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6. Galderak, eskaerak eta proposamenak.**



Alkate jaunak, galderak, eskaerak eta proposamenak txanda ireki du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“En septiembre la Subdelegación del Gobierno se puso en contacto, vía telefónica y a través de carta, con el Ayuntamiento de Andoain para posibilitar el servicio itinerante de expedición del DNI, pasaporte, mediante los vehículos integrales de documentación. Y seis meses después el alcalde aún no ha respondido a dicha invitación. Por la calle nos lo han pedido, nos han parado, sabemos y tenemos constancia también que en Ataria ha habido ciudadanos que han llamado para para preguntar y, también, somos conscientes que otros municipios como Lasarte, Arrasate, Alegia, Zumarraga, Legazpi, Elgoibar o más recientemente también Azkoitia, lo han solicitado y que está siendo un éxito, han expedido más de 950 documentos, lo que ha supuesto también que 950 personas no hayan tenido que ir a Donosti, lo hayan podido hacer en las plazas de sus pueblos, sus DNI y sus pasaportes, y, por lo tanto, no hayan perdido ni tiempo, ni dinero.

“Me gustaría nos gustaría recordar que el servicio que pone a disposición la Subdelegación del Gobierno al Ayuntamiento de Andoain, en este caso es un servicio gratuito para el ayuntamiento, que está dirigido a toda la población y con especial incidencia a las personas mayores y a las personas con movilidad reducida, que en la actualidad, como he dicho, tienen que ir a Donostia y a Irún a realizar estos trámites.

“Si el alcalde lo solicita, lo podrían hacer, como digo, en la plaza de Andoain, en su propio municipio. Por eso mismo solicitamos que, por favor, no se demoren más, y que hoy mismo lo pidan, respondan a esa solicitud. Y pidan que por favor, Andoain disponga del servicio móvil para la expedición de DNI y de pasaportes. Mila esker.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bueno, zuk esan duzuna horrela da, gai hori aztertzen ari gera. Gaur bertan egon naiz udaltzainburuarekin hitz egiten kokapenaren inguruan eta beste gauza tekniko batzuen inguruan aztertzen eta espero dugu epe motzean, erantzun bat eman ahal izatea.”

Alkain jaunak, erantzuten du:

“Bale, eskertzen dugu. También queríamos hacer, pues, bueno, la reflexión de lo pedido. Lo estamos pidiendo desde la oposición y esto debería...esta conversación que ha tenido hoy el señor alcalde entiendo que es porque el Partido Socialista ha metido un registro, incluso ha salido en prensa, si se hubiese hecho hace seis meses, en septiembre, no hubiésemos perdido estos seis meses, que no hemos podido disfrutar, la ciudadanía no ha podido disfrutar de ese servicio.

“Esperemos que en cuanto tenga noticia de ello, nos lo comuniquen y hagan la correspondiente comunicación a la población de Andoain para que puedan beneficiarse del servicio.”

Jarraian, Ruiz andreak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aurreko plenoan udal erregistroan egin genuen Zabalgune, Amenabarri buruzko eskaera. Ba bueno nahi genuelako batzorde espezifikoa egitea. Eta aurreko astean Lurralde Batzordean zinegotziak esan zigun ba bueno nola konponduta zegoela arazoa herritarrekin, Amenabarrek egin zuela uko, ordainketa horrekin. Galdetu ziguten, ea jarraitu nahi genuen batzordearekin. Pentsatzen dugu muina, nahiz eta arazo hori herritarrekiko konpondu, pentsatzen dugu arazo, muin hori, ez dela konpondu.

“Gauza da konpontzea herritarrei, diru hori bueltatzea, ez dutela ordaindu behar, eta beste gauza da ba guk, udal bezala, ba zalantza asko, eta bueno, ba jakitea berez prozesu hori nola izan den hasiera hasieratik. Eta bueno, uste dut, ez dakit udal bezala bere funtzioak zein izan diren hasieratik. Eta bueno, bakoitzak bete duen papera zein izan den. Eta bueno ba pixka bat, aurrekoan azaldu genuen bezala jarraitu nahi dugula, ba hori, batzorde hori osatzearekin.”

Jarraian, Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, gu erabat ados, guk ere ez dugu inongo arazorik eta gainera prest gaude, hori, jatorriraino joan eta 2004 urtera joanda argitzeko eta ikertzeko. Guk hiru urte hauetan eman diren pauso guztiei buruz ez daukagu inongo eragozpenik emateko eta muinera joateko eragozpenik ez. Bai, esan nahi duguna da guretzako orain lehentasuna dela pertsona kaltetu horiei dirua itzultzea.

“Esan beharra daukagu epaitegitik gauzak ez direla oso erraz jartzen ari zeren nolabait esan, zerrenda



pasa ziguten hasiera batean eskaneatutako orri batean, eskuz pikatzen aritu dira gure teknikariak eta gero kontu korronterik ez digu bidali. Orduan horrek eskatzen duena da, sekulako lana Ogasun Sailean.

“Bihar goizean goizeko bederatzitan daukagu departamentuko bilera. Eta nahiko genuke bilera hortatik komunikazio bat ateratzea, bizilagunei, eta zuekin ere harremanetan jarriko gara, ikusteko nola izango den diru itzulketa horren prozedura, eta behin hori eginda, diru hori itzulita, hau ez da diru itzulketarekin amaitzen, Erregistro de la Propiedadean azaldu beharko lukete etxejabe hauek kargarik gabe, eta orduan udaletik ulertzen dugu lagundu behar diela prozedura horretan ere, hau da, ez soilik dirua itzuli, baizik eta etxeetako kargan, Erregistro de la Propiedadean lagundu behar direla hori kentzen, karga hori kentzen.

“Hau esanda, guk, gertatutakoaren inguruan eman beharreko azalpenak emateko egon daitezkeen galderak erantzuteko, guk, hiru urte hauetako galderak, erantzutea daukagu, aurreko lau urteetako galderak, beste batzuk erantzun beharko dituzte. Guk prestutasun osoa daukagu, baina esan bezala, lehentasuna guretzat orain da herritarrei dirua itzultzea eta horretan jarriko gara eta bukatzen denean, espero dugu aste gutxiren buruan ba beste batzorde berezi horrekin abiatzea.”

Berriro ere, Ruiz andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, bai, gu erabat ados gaude lehentasuna duela herritarren arazo hori konpontzeak, baino bai nahi dugula ba hori, osatzea batzorde hori.

Jarraian, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Con respecto a este tema, desde el grupo municipal socialista repetir también en el Pleno lo que hemos trasladado tanto en la Comisión de Urbanismo como por registro, que por favor se siga informando y se informe, que se tenga informada a la ciudadanía con todos los pasos día a día y con cada novedad que haya con este caso, porque bueno, dentro del malestar lógico y normal que hay, la gente se está haciendo preguntas, cuándo se les va a devolver, cómo se les va a devolver, y creo que ahí sí que se puede hacer un mayor esfuerzo comunicativo, sobre todo en esta fase en la que a la ciudadanía no le está llegando.

“Y por otro lado, nosotros desde el grupo municipal socialista igualmente, no tenemos ningún problema en que se celebre esa comisión, esa comisión especial, incluso lo compartimos.

Y, como hemos pedido por registro, sí que nos gustaría que se invitase a los diferentes actores que han participado en todo este proceso, concretamente, para que respondan a todas las preguntas, nos den todos los datos y toda la información que falta. Y concretamente nos referimos al equipo jurídico que ha defendido los intereses del ayuntamiento, a la plataforma vecinal que se ha formado, y también a los servicios jurídicos de Amenabar para que expliquen por qué una semana antes de renunciar al cobro estaban insistentemente pidiendo que la ciudadanía sí o sí lo pagase, y creemos que es importante que ellos nos expliquen en esa comisión qué es lo que ha pasado para que haya ocurrido ese cambio de criterio, y que los diferentes partidos que estamos aquí representados y también la ciudadanía tengan la oportunidad de poder preguntarle a ellos y al resto de personas que estemos allí presentes.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Ba nik uste dut bat egiten dugula prozedurarekin, hau da, orain lehentasuna herritarrei dirua itzultzea da. Horretarako askotan esaten da informatzea, baina informatzeko ere eduki behar dituzu datuak eta esan dizuedan bezala, epaitegiak eta bueno, idazkariak berak esan dezake, epaitegia ez da errazten ari lan hori, eta komunikatu ahal izateko jakin behar duguna da zenbaterik egin duten, zerrenda eduki, bueno, prozedura guzti hori. Orduan, bihar barneko barne bilera hori departamentuarekin egin ostean, helburua litzateke zuekin harremanetan jartzea emango diren urratsak adierazteko eta hori bera komunikatzea herritarrei. Behin hau igarota, egingo dugu batzorde hori. Gonbidatuko ditugu herritarrek, gonbidatuko ditugu denbora guzti honetan erantzukizuna izan duten alkate, zinegotzi eta behar den jende guztia gonbidatuko dugu eta eman beharko dituzte behar diren azalpenak. Gure aldetik inongo arazorik ez, eta guk hiru urte hauetan egin dugunaren berri emateko, guzti honen berri, eta gainera nahi dugu eman guztiaren berri.”

Jarraian, jendarteko herritar batek eskatu du hitza eta Idazkari jaunak honakoa adierazi dio:

“Únicamente comunicarle que esta sesión se está transmitiendo vía streaming, y que si no indica lo



**Andoingo Udala**

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2026/03/26

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 26/03/2026

contrario, se entiende que presta su consentimiento al tratamiento de su imagen y voz.”

Jarraian, hitza hartu du herritarrak.

Berriro ere, Alkate jaunak, hartu du hitza, eta herritarrari eskerrak eman ondoren, honakoa esan du:

“Ba galdera erregu gehiagorik ez badago, eta ulertzen dut jada publikoan zaudetenak ez dezuela gehiago esateko. Inork parte hartu nahi? Amaitutzat emango degu martxoko ohiko udalbatza hau. Mila esker denei.”

Eta beste aztergairik ezcan, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.22 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

**Alkatea**

**Idazkaria**

